

KOSTUEN EGITURA

Kostuak egituratzea, negozio-eredu bat aurrera ateratzeak dakartzan kostu guztien definizioa egitea da.

Gure enpresa aurrera ateratzeko hainbat gastuei aurre egin behar diegu.

Kostu finkoak: alde batetik, lokala dago, 100€/hilabeteko eta, bestetik, gure lankideen soldata ordaindu behar dugu, 6€/ordua.

Kostu aldakorrak: kostu aldakorren barruan, lokalaren argiaren eta uraren kostua izango dugu.

Eskala-ekonomikoa: gure enpresak eskala-ekonomikoa, bereziki, azterketa garaian, errekuperaketa garaian eta klaseak hasten direnean izango du. Hau da, irailean, abenduan, otsailean eta ekainaren hasieran eta hau ia ziurtasun osoz jakin dezakegunez, garai hauetarako premium formatu bat sortuko dugu eta bertan online klaseak emango ditugu.

Hedapen-ekonomikoa: Gure enpresa Espainia mailan zabaltzea izango zen gure hedapen-ekonomikoaren helburua. Baina, bereziki eta gehienbat Euskal Herrian zabaltzea espero dugu.